

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ARRASATEKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko apirilaren 30ean egin-dako bilkuran, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

I. Abiatzea espedientea behin behineko izaeraz baimentzeko Araba etorbidea 13 zenbakidun udal eraikinean (A.E. 35. Intxausti esparruan dago) Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen eta Arte Arrasateko Tailaginen Elkartearen jarduerak garatzea, eta horiek garatu ahal izateko beharrezko lanak egitea, espedienteen jasotako proiektuen arabera. Erabilera horiek udal zerbitzu batean xertatzen dira, datzana herriaren alde lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarten eskura lokalak jartzean.

II. Informazio publikoan jartzea espedientea hogei egunez, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 37.1.c artikularekin bat. Horretarako iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hurrengo egunetik hasiko da zenbaitzen epea. Epe horretan espedienteaz aztertu ahal izango da eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Espedientearen publikoaren eskura egongo da Udaletxean bertan dagoen hirigintza, ingurumen eta mugikortasun sailean, eta halaber, jarduera proiektuak [www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus) webgunean eskuragarri egongo dira epealdian zehar.

III. Informazio publiko epearen ondoren, Udalak ebatziko du behin behineko erabilera baimendu ala ez. Aparte, jarduera gauzatu ahal izateko gainerako gaikuntza tituluak eskuratu beharko dira.

Aipatutako akordioaren aurka, tramitzeko ekintza bat denez, ez dagokio ohizko administrazio errekurtsorik, interesatuek egin nahi dituzten legezko beste ekintzen kalterik gabe.

Arrasate, 2020ko ekainaren 11.—Alkatea. (2748)

AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 30 de abril de 2020, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

I. Iniciar expediente con carácter provisional para la autorización del desarrollo de las actividades de la asociación Dorletako Ama Txirrindulari Elkarte y la asociación Arte Arrasateko Tailaginen Elkarte en el edificio municipal de Araba etorbidea n.º 13 (se encuentra en el ámbito AE 35. Intxausti), y realizar los trabajos necesarios para poder desarrollar estas, de conformidad con los proyectos contemplados en el expediente. Estos usos se incorporan a un servicio municipal, que significa dejar los locales en manos de unas asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en favor del municipio.

II. Someter a información pública el expediente durante veinte días, de acuerdo con el art. 37.1.c de la Ley 2/2006, de Urbanismo y Suelo. Para ello, se publicará el anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y el plazo comenzará partir del día siguiente. En dicho plazo se podrá estudiar el expediente y se podrán presentar alegaciones. El expediente se someterá al público en el propio Ayuntamiento, en el departamento de Urbanismo, Medio Ambiente y Movilidad, y asimismo, los proyectos de actividades estarán disponibles en dicho plazo en el sitio web del Ayuntamiento ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)).

III. Tras la finalización del plazo de información pública, el Ayuntamiento resolverá la autorización o no del uso provisional. Además, se deberán conseguir el resto de títulos de habilitación para poder ejecutar la actividad.

Contra el anterior acuerdo, por ser un acto de trámite, no cabe recurso administrativo ordinario alguno, sin perjuicio de cuantas otras acciones legales pueda interponer.

Mondragón, a 11 de junio de 2020.—La alcaldesa. (2748)